

NAFARROAKO MUSEOKO HISTORIAURREKO GELA



HISTORIAURREKO GELA BERRIA

Sortu zenez geroztik, Nafarroako Museoak Nafarroaren kultur oroigarrien parte handi bat gordetzen du. Oroigarri horietatik zaharrenak aztarnategietatik ailegatutako pieza arkeologikoak dira. Haiei esker, indusketa eta azterketa lana egoki egindakoan, gure lurreen bizi izan ziren lehen-biziko gizakien berri dugu orain.

1990. urtean Nafarroako Museoak, berritzeko prozesu sakon baten ondoren, bere ateak ireki zituenetik, gure historiaurrea ezagutzen laguntzen diguten aurrerapen asko eta oso garrantzitsuak gertatu dira. Haietatik batzuk zientzialarien jardueraren fruitu, lan arkeologiko handiaren segida betiere; izan ere, indusketa programatu ugari egin dira, eta, bestetik, Nafarroa osoan egindako azpiegituretako lanetan ere agerian gelditu dira aztarna asko. Hori guztia dela-eta, Museoko Historiaurrearen Gela berri beharra zegoela ikusi zen garbi. Ondare Historikoaren Zerbitzuko Jesús García Gazólaz eta Jesús Sesma Sesma arkeologoen lan onaren ondorioz, hobeki ezagutzen ahal dugu orain K.a. 300.000. urtetik K.o. 400. urtera bitarteko denbora tarte. Horretarako, aski dugu patxadan eta arretaz bitritetan jarritakoa ikustea, zeren, aurreko diseinuari eutsiagatik, azalpen zientifiko gaurkotua eskaintzen baita.

Ibilbidean testu labur batzuek kokatzen gaituzte tokian eta denboran. Azalpen orokorrak dira batzuk, xehetasunei buruzkoak beste batzuk, eta badira, jakina, garai bateko pieza garrantzitsuenei buruzkoak ere. Irudiak ere badiugu (marrakziak, argazkiak, mapak, berreraikitze hipotetikoak, etab.). Horien bitartez hobeki ulertuko dira gaurdaino iraun duten aztarnei esker ezagutu ditugun ohitura, jokabide eta sinesmenak.

Gaurkotze zientifiko honek hauxe du, beraz, xedea eta mamia: azalpenez horniturik jendaurrean jartzea zenbait kasutan Nafarroatik haratagoko garrantzia duten piezak.

Ikusleari ulertzen laguntzeko, Europaren mendebaldeko Paleolitoan parerik ez duen piezaren anpliazio bat jarri da ikusgai, 2'75:1 eskalan. 1. blokea da, "Abaunzeko mapa" deritzona hain zuzen. Bertan, harpe baten inguruko elementu geografikoak ageri dira grabaturik, eta, horiekin batera, animalia talde baten marrakzia perspektiban, gaur egun ezagutzen den bakarra.

PALEOLITOA » EPIPALEOLITOA » NEOLITOA » KALKOLITOA » BRONTZE AROA

PALEOLITOA

Lehenbiziko bitrina **Paleolitoan hasten da (K.a. 300.000-8.500)**, harria lantzeko teknologia garatu zen garaian. Ehiza estrategiak bilakatuz joan ziren: lehenbizi, beste animalia batzuen harrapakien hondarrak jatea, gero bulkagailua, eta ondoren arkuaren espezializazioa. Bizilekua, gehienetan, harpea izaten da, haitzuloa. Adierazpen artistikoak aurkitu dira, bai parretakoak, bai arte higarriko piezak ere, baina ez dugu haien hiletta-errituen berri. Nabarmentzekoa da, jakina, **Alkerdiko lezeko giza hagina (Urdazubi)**, *Homo sapiens* bate-na, Nafarroako Historiaurreko lehenbiziko giza aztarna (K.a. 24.530).

EPIPALEOLITOA

Aro glaziarra bukatuta, **Epipaleolitoan (K.a. 8.500-4.500)**, ingurumenaren aldaketak bilakaera eragin zuen teknologian eta bizirik irauteko moduetan. Harrizko tresnak gero eta txikiagoak bihurtu ziren, eta azkenean geziak egiteko landutako pieza txikiak (mikrolito geometrikoak). Bizileku nagusiak ibai ondoko harrizko babeslekuak, eta haietan talde ibiltariak egoten ziren, talde ez oso handiak. Garai hartakoa da **Nafarroako Historiarreko lehenbiziko hilobia (Aizpea)**, lurperatutako emakume bat aurkitu baitzen bertan (K.a. 4.600. ingurukoa da).

NEOLITOA

Neolitoan (K.a. 4.500-2.500) pixkanakako prozesu batean, ehiztari taldeak nekazari komunitate bihurtu ziren. Zenbait belaundiz, bi bizimoduak batera egon ziren bizirik Nafarroan, erregistro arkeologikoak erakusten duen bezala. Gutxikagutxika, aldaketa ekonomiko, sozial eta idelgikoak gertatu ziren. Zereala lantzeko eta animaliak hezteak, aziendak alegia,



ARANTZADUIKO
AURPEGI BIKOA
(URBASA)

zuzeneko ondorioa izan zuen: giza taldeak bizimodu sedentarioa egiten hasi eta, jakina, jendeguneak sortu ziren. Horrek ez du esan nahi, dena dela, beste toki batzuetatik ekarritako material edo produkturik aurkitu ez daitekeenik: Mediterraneo aldeko apaingarriak, konparaziora, **Columbella rustica eta kalaita**. Horiekin batera, orobat, lehenbiziko aldiz aurkitzen dira Historiaurreko hilobi multzoak, nekropolitzat hartzen ahal ditugunak, bizilekuen barnean betiere.

KALKOLITOA

Kalkolitoa (K.a. 2.500-1.800), Nafarroan, berezia da, indartu egiten baitira Neolitoan sortutako kultur prozesuak. Igoera demografiko nabaria gertatu zen, eta geografikoki ere hedatu ziren giza taldeak. Bizilekuen eta leku ustiatuen dibertsifikazioa gertatu zen halaber. Hileta-usadioak ezagutzen ditugu hobekiena. Fenomeno megalitikoaren erakusgarriak daukagu Nafarroako txoko askotan: trikuharrri sare zabala dugu, hilobiratze kolektiboaren froga garbia. **Tres Montesko (Errege Bardea) kanpai-formako zeramika** da nabarmentzekoa (**itsasokoan tankerakoa**).

BRONTZE AROA

Brontze Aroan (K.a. 1.800-900) aldaketak eragin zituzten zenbait berrikuntza teknologikok: brontzearen aurkikuntza, nekazaritzako produkzioa handitzea eta animalien aprobetxamendua. Buruzagiak agertu ziren giza taldeetan, eta, haiekin, desagertu zen igualitarismoa eta lurralde oreka. Hiletetako ostilamendua taldean buru den horren prestigioaren erakusgarria da. Nabarmentzekoa da **Gizon Berdeen Haitzuloko burezur berdez tintatua (Urbiola)**, kobre-meategi zahar batean ehorztearen ondorio.

GOI PALEOLITOA ABAUNZKO LAMIZULOA

Bigarren bitrinan eten egiten da gelaren azalpen-haria den irizpidea. Honetan, aztarnategi bat bakarra da gaia. **Abaunzko lamizuloan (Arraitz-Orkin, Ultzama)** aurkitutako materialak daude ikusgai. Kronologikoki, Erdi Paleolitik Erromako behe inperioaren garaira doa (**K.a. 45.000 – K.o. 400**). Hauxe da, gaurdaino, Nafarroan dagoen sekuentzia osatuena. Arte higigarriko piezak dira nabarmenenak, magdaleniar arokoak, hau da, hotz izugarria egiten zuen garai batekoak.

Hiru errekarri daude erakusgai, burilez irarritako irudiak dituztenak, estilo franko-kantauriarraren ezaugarriekikoak. Hiruretan bereziena **1. blokea “Abaunzko mapa”** izenekoa da. Pieza hau irakurtzen zaila da, grabatu asko dituelako. Pilar Utrilla doktorea eta haren taldeak haitzuloaren ingurunearen mapatzat hartu dute. Bertan, inguruko geografia-ezaugarri agerikoenak ikusten dira, gaur egun ere identifikatzeko modukoak: lamizuloaren eta San Gregorio mendiaren arteko zintzurra, Zaldazaingo erreka, erreka pasatzeko ibiak eta udaberrian putzu ziren aldeak eta beste zenbait. Horietaz gainera, bi ahuntz talde daude, errekaaren alde banatan. Haiekin batera, animalien grabatuak daude, eskala handian. Nabar-

mentzekoa da orein ar handi bat marruka, orein eme batzuk, eta gizaki bat. Oreinen araldia, seguruenen. Zer da? Mapa bat? Ehizarako estrategiaren plana? Edo bizi izandako eszena bat? Nolanahi ere, parrerik gabeko irudia da Europaren men-debaldean, bai antzinatasunagatik (15.500 urte), bai baliabide teknikoengatik. Azpimarratzekoa da nola dagoen adierazia perspektiba, ahuntz batzuk beste batzuen gainean jarrita, harri puska haustura batenatzean ezkutaturik. Azpimarratzekoa da, bestetik, egilearen irudi subjektiboa, haitzuloaren ahotik egina. Pieza paregabea da, gizateriak tokia irudikatzerakoan egindako lorpenak azaleratzen dituen, segur aski eginkizun garrantzitsu bati lotua: ehizari. 2. errekarri edo bloke deitua lanpara modura erabili zen, eta hartan zaldi bat eta ahuntz batzuk grabatu ziren. 3. blokean, berriz, beste zaldi baten irudi naturalista bat ikusten da, sinbolismoz hornitua.

Ikusgai dauden beste piezek argi uzten dute Abaunzko biztanleek hezurra erabili zutela eskemak irudikatzeko (eskailera formakoak), baita marfila ere zintzilikario bat egiteko, 7 marka dituen. Segur aski zenbatzeko sistema bat, ilargialdian oinarritua, ilargi-egutegi moduko zer bait.



ZALDI GRABATUA.
ABAUNZKO LAMIZULOA

BURDIN AROA

LEHEN BURDIN AROA

Hirugarren bitrina, oso-osorik, Burdin Aroari buruzkoa da. Aro hau bitan banatua ageri da. **Lehen Burdin Aroan (K.a. 900-400)** garrantzi handiko aldatketak gertatu ziren, eta haiek eragin handia izan zuten bizitzaren arlo guztietan. Europaren erdialdeko giza taldeak ailegatu ziren, zelden ohiturak zituztenak. Hileta-erritua ere desberdina da: gorputza erre eta gero erraunts-kutxa batean sartzen ziren hautsak, eta nabari da zein diren pertsona inportanteen hilobiak. Bizigune berriak sortu zituzten, harresidunak, eta etxeak elkarri erantsiak egiten hasi ziren, harriz, pezoz eta lastoz eginak. Apaingarri eta arropetarako gustu berriak sortu ziren (fibulak, gerrikoetako urrezko eta zilarrezko brotxeak...), jabeen gizarte mailaren erakusgarri. Brontzearen erabilera erabat zabaldu zen, baita lehenbiziko burdinarena ere. Hauek dira pieza nabarmenenak: **Castejóngo El Castillo**ko nekropoliko zilarrezko katilu apaindua, **El Castillo**ko nekropoliko estalkia, **zaldi-protomo** bat duena, **Cortesko El Alto de la Cruz**eko idolotxoak, eta **Etxauriko Deposituko Ezpata** bitxia.

BIGARREN BURDIN AROA

Bigarren Burdin Aroan (K.a. 400-100) zenbait hiri gotortu sortu ziren, estatu baten antzeko antolamendua zutenak. Halaxe banatu zuten lurraldea bi talde etniko nagusiek: baskoiak eta zeltiberoak. Haien kultura aurreratua ondoko hauek izan zuten: ezagutzen zuten idazketa (txanponetako testuak eta testu juridikoak), pisuen eta neurrien sistema bat, eraikuntzako teknika eta teknologia landua (tornuz eginiko zeramika, urregintza, etab.), dena aztarna arkeologiko ugarirekin batera, bereziki beroien Uaracos herrian (La Custodia, Viana). Multzo horretan aipatzekoak dira **La Custodiako teserak (Viana)**: iberiar zeinuz idatzitako testuak dituzte. Horiei esker dakigu abegi itunak erabiltzen zizuztela herri horretan.

BASURDE-TESERA
LA CUSTODIA (VIANA)




GELAKO PLANOA

3. BITRINA

Burdin Aroa

K.a. 900. urtetik K.a. 100era



1. BITRINA